

Itzurun

Osteguna, 2012ko ekainaren 7a

Hamar urte dira Francisco Escudero hil zela; lau mila ikasle trebatu zituen musikagintzan II-III

MUSIKAGILE, IRAKASLE ETA ZUZENDARI



Francisco Escudero, pianoa jotzen. GUREGIPUZKOANET

Amaia Torrubia Bitxigilea

«Ondoko mahaian egon beharrean, pantailan dago Yolanda»

Torrubia ahizpek elkarrekin lan egiten dute, bata hirian eta bestea New Yorken bizi arren

Elkarrizketa ▶ VII



OLAIA GIL SANCHEZ

luze-zabalean >

Jarrai dezala musikak



Escudero, eskuinean, Manuel Lekuonarekin, 1960. hamarkadan. ERESBIL

Aritz Sorzabal

Hamar urte beteko dira gaur Francisco Escudero konpositore donostiarra hil zela. Aurten, gainera, bere jaiotzaren mendeurrena da. Honengatik guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Zarauzko Udalak –bertara joan zen bitzitzena bost urte baino gutxiago zituenean– eta Eresbilek argitalpen bat kaleratu dute musikagilearen bitzaren berri emateko. Izan ere, XX. mendeko euskal musikagintzan garrantzi handiko gizonezkoen arren, bere lana ez da behar lukeen neurrian ezagutzen.

Ondorengo leteroetan, Escuderenen biziaren une esanguratsuenak bildu ditu IRUTXULOKO HITZAK.
aosorzabal@hitza.info

↓ 1912

■ **Donostiatik Zarautzera.** 1912ko abuztuaren 13an jaio zen Francisco Escudero, hiria aberatsen udako gotorleku zenean. Bost urte baino gutxiago zituenean, haren familiaik Zarautzera bizieta joatea erabaki zuen.

↓ 1920

■ **Musika, ikasgai.** Zarautz Hiriko Musika Bandaren akade-

Francisco Escudero duela hamar urte hil zen, gaurko egunean; konpositore gisa ibilbide oparoa egiteaz gain, Donostiako Musika Kontserbatorioko zuzendaria izan zen hemezortzi urtez

Donostiarak lau mila ikasle baino gehiagori eman zizkien eskolak; 34 belaunaldi desberdinei, hain zuzen ere

mian musika ikasketekin hasi zen. Solfeoa ikasi zuen bertan, eta xirula piccoloa eta oboea jo zituen. Zarauzko parrokiako abesbatzan kantatzen hasi zen.

↓ 1929

■ **Hiriko kontserbatorioa.** Donostiako Musika Kontserbatorioan izena eman zuen ikaslea, eta armonia eta pianoa ikasizituen Beltran Pagolarekin, eta oboea Antonio Cortesekin.

■ **Lehen agerraldia.** 1929ko azaroaren 22an, Escudero lehen aldiz aurkeztu zuten konpositore gisajendaurrean. *Berceus* entzungai izan zen, Viktoria Eugenia Antzokian, kontserbatorioaren orkestraren bitartez.

↓ 1932

■ **Madril eta Parisera.** Gipuzkoako Foru Aldundiak banatutako beka bat jaso zuen eta, horren

bitartez, bere ikasketak aberastu zituen Madril eta Parisen. Orkestra bat zuzentzeko irizpi-deak ikasi zituen Parisen, Albert Wolffekin. Horretaz gain, biolina eta tronpa jotzen ikasi zuen, hari eta haize instrumentuen aukearak hobeto ezagutzeko.

↓ 1936

■ **Gerraren etorrera.** Musikagile profesionala izateko ametsa erdiesteko atarian zela etorrizten 1936ko gerra. Errepublikaren alde borroka egin zuen, euskaldunen alboan. Getariako Mendi-gizaleekin bat egin zuen eta, ge-roago, EAJren Aralar batalioian.

↓ 1937

■ **Herbestea.** Frantzian herbestea ezagutu zuen. Parisen zela, diru laguntza lortu zuen bere ikasketekin jarraitzeko. Zenbait obra egin zituen garai honetan.

↓ 1940

■ **Espaniara berriro.** Bigarren Mundu Gerra dela eta, alemaniarrek Frantzian indarrez sartu eta gero, Spainiara itzuli zen. Frankistek kontzentrazio esparru batera eraman zuten, Madrilera. Hiru hilabetez izan zen han.

↓ 1942

■ **Babes eskaera.** Musika arloan zuen dohainak ikusita, bere ikasketak Beltran Pagolarekin eta Donostiako Musika Kontserbatorioiko beste zenbait ikaslekin, gizarteko aurpegia ezagun batzuekin batera, aldundiari eta udalari eskuatu zioten Escudero babes zezatela, bere obra Madrilen erakus zezan.

■ **Harrera bikaina, San Telmo.** San Telmo Museoan emanaldi pribatua eskaini zuen, eta txalo zaparrada jaso zuen Donostia-k musika arloko adituen alde-

tik. Lantzen ari zen izen onak emaitza izan zuen; aldundiak eta udalak diruz lagunduta, Madrilera joan zen bitzitzen. Espainiako hiriburuaren ezaguna egiten hasi zen.

↓ 1945

■ **Euskal Herrian berriro.** Bilbon musika irakasle bezala egin zuen lan, 1948a arte. Ideia berri-tzaileak izan zituen; neska eta mutilen arteko topaketak sustatu zituen bere jardueran, eta zentzurik ez zuten zenbait araukin hautsi zuen, hala nola, ikasleak eskola hasi baino lehenago makurtu behar izatearena otoi egiteko. Zuzendari lanetan ibili zen ere Bilboko abesbatza batean. Zenbait lan estreinatu zituen Blizkaiko hiriburuaren.

↓ 1948

■ **Pagolaren ordez.** Armonia eta Konposizio katedra eskuratu zuen Donostiako Musika Kontserbatorioan, eta Beltran Pagolak utzitako hutsunea bete zuen.

■ **Lau mila ikasle.** Irakasle bezala ibilbide oparoa egin zuen; 34 belaunaldi desberdin pasa ziren bere eskoletatik, lau mila ikasle baino gehiago. Oscar sarietarako hirutan hautagai izan den Alberto Iglesias eta Musikeneko irakasle Ramon Lazcano, esaterako, bere ikasleak izan ziren.

↓ 1951

■ **Ezkontza.** 1951ko urriaren 15ean, Goyita Eizagirrerek ezkondu zen. Hiru seme eta alaba bat izango zituzten elkarrekin. Zarautzen bizi ziren hasieran, baina 1960 hamarkadaren erdialdean Donostiara lekuz aldatu ziren.

↓ 1953

■ **Iparragirre Saria.** Hiletalana-regatik, aldundiaren Iparragirre Saria eskuratu zuen.

↓ 1955

■ **Arantzazun, sari berri bat.** Arantzazu poema sinfonikoa santutegiaren garaikurrarekin saritu zuten. Bartzelonako Palau de la Musica aretoan estrenatu zuten, 1959an.

↓ 1961

■ **Hiriko Musika Banda.** Escudero Donostia Hiriko Musika Banda sortu eta zuzendu zuen. Gipuzkoako Bazkundearen orkestrako zuzendaria ere izan zen.

↓ 1962

■ **Zuzendari.** Donostiaiko Musika Kontserbatorioko zuzendaria izendatu zuen udalak. 1980a arte egon zen karguan. Ekarri handia egin zuen: eskolak goi mailako gradua lortu zuen; eta txistu, akordeoi, gitarra eta perkusio ikasketak ofizialki ezar-tea ahalbidetu zuen.

↓ 1967

■ **Lehen opera.** *Zigor!*, bere lehen opera, Bilboko Albia antzokian estreinatu zuen kontzertu gisa. Antzerki moduan, urtebetete geroago aurkeztuko zuten Madrilgo Zarzuela antzokian.

↓ 1975

■ **Urrezko Mollarria.** Zarauzko Udalak hiriko semetzakoa izendatu zuen, eta Urrezko Mollarria eman zion.

↓ 1982

■ **Erretiroa.** Konposizioan murgildu zen bete-betean, erretiroa hartu eta gero. Hala ere, bere etxeen irakasle lanetan jarraitu zuen; lehenengo Donostian eta gero, Zarautzen. Azken hiri honetan bere bizitzako azken urteak pasa zituen. Adinarengatik ia mugitu ezinik zebilenean ere konposatu zuen.

↓ 1987

■ **Bigarren opera.** Bilboko Arriaga antzokian *Gernikaes-treinatu* zuten, bere bigarren opera, kontzertu moduan. Gernikako bombardaketaren 50. urtemugaren harira antolatutako jardueren baitan programatu zuten emanaldia.

↓ 1992

■ **Sari gehiago.** Gipuzkoako eta Donostiaiko Zilarrezko Dominak eskuratu zituen 1992an. Hortik aurrera, sarien eta izendapenen dantza hasi zen: 1993an, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte-

ko kide izendatu zuten; 1996an, Zarauzko Urrezko Domina jaso eta hiriko seme izendatu zuten; 1997an, Spainiako Kultura Ministerioaren Arte Ederretako Urrezko Domina jaso zuen; 1999an, Spainiako Egileen eta Editoreen Elkartearren Urrezko Domina; eta 2003an, hil eta urtebetera, Euskal Herriko Unibertsitatea-Donostiaiko Orfeoia Sariarekin ohore egin zioten.

■ **Urtebetetze oparia.** Musika Hamabostaldiak monografiakoa eskaini zion bere 80. urtebetzea zela eta.


↓ 2002

■ **89 urterekin.** 2002ko ekainaren 7an, Donostian zenu zen.

Jaungoikoari ahotsa jartzen saiatu zen

Francisco Escudero lan ugari egin zituen; bere obren zerrenda oso luzea eta anitza da, hainbat esparrun lan egin baitzen. Bere azken lana *Sintonia* izan zen, eta 86 urterekin osatu zuen.

1998tik aurrera, amaitu ezin izan zituen konponketa batzuk gauzatzten saiatu zen; *San Juan Bautista eta Genesis oratorioetan*, hain justu. *Genesis* lanari dagokionez, ez aurrera ez atzera ibili zen Jaungoikoak zein ahotsa izan behar zuen pentsatzeko unean. «Nola egin dezake gure Jaungoikoa kantaratzeko?», galdezu ohi zuen.



Francisco Escudero, Ramon Usandizaga, Beltran Pagola eta Pablo Sorozabal, 1950. urtean. ERESBIL



Jorge Oteiza, Imanol Murua eta Francisco Escudero, 1999an. ERESBIL



Zarauzko bulegoan, lanean, 1960. hamarkadan. ERESBIL



Zigor! obra 1967an estreinatu zuen Bilbon. Irudian, ikusleak agurtzen. ERESBIL